

Liburu berriak. "Hablando con los vascos", Martín de Ugalde, Arielen Armendaritz

Anaitasuna, 273. zk., 1974-04-15: 7.

Behin baino gehiagotan esanak gara, aurtengoa mirarien urtea dukegula. Añoveros jaun apezpikuaren homiliaren ondoren, euskal akzioak aspaldixeon gorantz doazela esanen genuke. Areilza jaunak martxoaren 20ko ABCen egindako deklarazioen arauera (geroago "Informaciones" en berraiatuak eta laudatuak), euskal problemaren soluzioa, Sáinz poliziburuaren hitzez esateko, ez da polizi bidezkoa, eta nola edo halako autonomia bat eskatzera ausartzen da.

Giro honetan, *Cuadernos para el Diálogo*ren gehigarria egoki etorri zen eta are egokiago, ene eritzi apaleon, ARIEL editorialak oraintsu eskaini digun beste liburu hau. Martín de Ugalde idazle eta euskaltzain laguntzaileak –Espainiatik, dirudienez, *persona non grat*at zat jaurtikiak– moldatu du obra irakurgarri hau. Elkar hizketa bidez, batzuk luze xamarak, zenbait euskal semek (euskaldunek eta baskoek) gaurko euskal problematikari buruz dituzten eritziak eta soluzioak agertzen dira, nork bere ikusmira ezberdinetik, baina guztiak oinharri komun eta zabal batetan finkaturik: Euskal Herriaren izatearen onhartzea eta beronen iraupen naturalaren (ez erdaldunki bestelakatuaren) nahia.

Eta oinharri honi nahitaezkoa deritzogu, zeren, honetaz, geure Herriaren nortasuna orain arte systematikoki ukatu diguten *vasco* horietakoek euskal problemaz deus gutti baitute esatekorik.

Aita Barandiaran, Ramon de la Sota, Luis Mitxelena, Aita Arrupe, Isidoro Fagoaga eta Agustin Ibarrolak, nork bere erara, ideien panoramika interesgarri bat demaigute, obra hau, zentsurak asko moztu arren, xit baliagarri egiten duena. Ez beza, ez, Martín de Ugaldek batere damurik ukan liburu honen argitaratzeaz. Bere fruituak laster ekarriko ditu; eta segur gaude, mirarien urte honetan, euskal arazoaren dibidendoek eskertu egingen diotela.

Hitz guttitan, guztiz irakurgarri deritzogun liburu bat, geure irakurle guztiei zin zinez gomendatzen dieguna.